

## Jose Luis de la Mataren irribarrea

Ez gara haien gustukoak, Jose Luis, zer egingo dugu? Zure irribarrea imajinatu dut galdera entzutean. Imajinatu, gogoratu, hori besterik ezin dugu egin duela urtebete hil zinen eta. Irribarrea, bai, baina zergatik? Zurekin hori gertatzen zen gehienetan: zerbait planteatu, eta berehala, berriz pentsatzeko, berriz planteatzeko aukerak irekitzen zenituen. Hitzak duen balioa...

Asko eta asko ikasi dugu Jose Luis de la Matarekin. Psiko(pato)logia ikasi dugu, baina bizitzaz ere ikasi dugu. Psiko(pato)logia eta bizitza batera ezinbestean; besteen desira askatzen laguntzeak bakoitzak barruko desira garatzeko konpromisoa eskatzen duelako.

Egun hauetan Jose Luisen hitzak eta idatziak gogoratzen gabilta: «Beste baten askatasun faltaz ohartzean, bere askatasuna mehatxatua dagoela sentitzen duen jendea dago». Jose Luis eta Teresa, bere kidea, 1982an etorri ziren Euskal Herri-  
ra; eskuzabalak izanik, askatasuna maite duen jendearekin prozesuan laguntzera. Ez hitz jario hutsala intelektueltasunarekin eta elkarrizketa-  
rekin nahaspilatu nahi dutenekin, ez. Orain atxilotutako gazteak eta Iñaki de Juanak torturapean erkutsitako duintasunaren alde argudiok ematen imajinatzen dut Jose Luis; bere ahotsa altxatzen jende solidariokin batera(...).

Imajinazioa eta gogoa, gorputza eta sinbolismoa, erreferentea eta historia, gatazka eta komunikazioa... Jose Luisek sortutako teoriak duen sakontasunak, konplexutasunak eta balio zientifikoek zaila, oso zaila, jarri dute bera baztertzea.

Sortu, landu nahi ezean, eroso egoteraino igoe-  
ra instituzionaletan haien indarrak sakabana-  
tzen dituztenekin ez zen nahasi. Bere mezua, al-  
diz, hauxe zen: bilatuz gero, subjektibotasunak bi-  
dea aurkituko du beti; eta iharduera horretan  
kideekin topatuko da; agian, banandu, baina giza  
neurriko objektibotasun libreago bat eraikiko du.  
Beste hitzetan: etsi gabe saiatzen denak bidea ire-  
kiko du, ziur egon, eta hortaz gozatuko du.

Ez gara haien gustukoak? Ez gara gehien-  
goa?... irribarrea.

■ Luix Marko. Izargain-Areso eta Leike taldeetako partaidea.





## Jose Luis de la Mataren irribarrea

Ez gara haien gustukoak, Jose Luis, zer egingo dugu?

Zure irribarrea imajinatu dut galdera entzutean.

Imajinatu, gogoratu, hori besterik ezin dugu egin duela urtebete hil zinen eta. Irribarrea bai, baina zergatik? Zurekin hori gertatzen zen gehienetan: zerbait planteatu eta berehala berriz pentsatzeko, berriz planteatzeko aukerak irekitzen zenituen. Hitzak duen balioa...

Askok eta asko ikasi dugu Jose Luis de la Matarekin. Psiko(pato)logia ikasi dugu baina bizitzaz ere ikasi dugu. Psiko(pato)logia eta bizitza batera ezinbestean; besteen desira askatzen laguntzeak bakoitzak barruko desira garatzeko konpromisoa eskatzen duelako.

Egun hauetan Jose Luisen hitzak eta idatziak gogoratzen gabilta: "Beste baten askatasun faltaz ohartzean, bere askatasuna mehatxatua dagoela sentitzen duen jendea dago". Hona hemen zergatik etorri ziren Jose Luis eta Teresa, bere kidea (besarkada bat, Teresa), Euskal Herrira 1982an: eskuzabal horietakoak izanik, askatasuna maite duen jendearekin prozesuan laguntzera. Ez hitz jario hutsala (euskaraz bada ere) intelektualtasunarekin eta elkarrizketarekin nahaspilatu nahi dutenekin, ez. Orain, atxilotutako gazteek eta Iñaki de Juanak torturapean erakutsitako duintasunaren alde argudioak ematen imajinatzen dut Jose Luis, bere ahotsa altxatzen jende solidarioarekin batera.

Imajinatzea ez da alferrikako zeregina; ekintza prestatzen du. Oso ondorio errealak ekarriko ditu, nahita zein oharkabean.

Pertsona bakoitzaren baitan gauzatu beharreko aukerak ernaltzen dira. Inertziei (politiko, sozial, ekonomiko, instituzional, familiako, moral, etab.) agintea emanez gero, bortxakeriak eta beldurrek desiraren kimuak erreko dituzte behin eta berriro, eta agindutakoa errepikatu besterik ez dugu egingo. Baina harremanek (sikiera bat nahikoa izan daiteke) identitatea sostengatzen badute, diferentzia baloratzen badute, subjektuak hitza eta ekintza aske eskura edukiko ditu. Jose Luisek pertsonetikiko eta taldeekiko bigarren aukera hori erein, bultzatu eta teorizatu egin zuen.

Imajinazioa eta gogoia, gorputza eta sinbolismoa, erreferentea eta historia, konfliktu eta komunikazioa... Jose Luisek sortutako teoriak dituen sakontasunak, konplexutasunak eta balio zientifikoak zaila, oso zaila, jarri dute Jose Luis bera baztertua.

Ez zen nahasi sortu eta landu gabe haien indarrak igoera instituzionaletan eroso egoteraino sakabanatzen dituztenekin. Bere mezua, aldiz, hauxe zen: bilatuz gero, subjektibotasunak beti aurkituko du bidea; eta jarduera horretan kideekin topatuko da, agian banandu, baina giza neurriko objektibotasun libreagoa eraikiko du. Beste hitzetan: etsi gabe saiatzen denak bidea irekiko du, ziur egon, eta hortaz gozatuko du.

Ez gara haien gustukoak? Ez gara gehiengo?... irribarrea.

**Luix Marko** (psikologoa) Izargain-Areso eta Leike taldeetako partaidea.

## La sonrisa de Jose Luis de la Mata

No les gustamos, Jose Luis ¿Qué vamos a hacer?

Me imagino tu sonrisa al oír la pregunta. Imaginar, recordar, es lo único que podemos hacer porque hace un año moriste. Sonrisa, si, pero ¿por qué? Contigo eso pasaba muchas veces: era plantear algo y enseguida abrías posibilidades de repensarlo, de replantearlo. El valor de la palabra...

Muchos y mucho hemos aprendido con Jose Luis de la Mata. Hemos aprendido psico(pato)logía pero hemos aprendido de la vida también. La psico(pato)logía y la vida juntos necesariamente, porque ayudar a liberar el deseo de otros exige el compromiso de desarrollar el deseo íntimo propio.

Estos días andamos recordando las palabras y escritos de Jose Luis: "Hay gente que al darse cuenta de la falta de libertad de otros siente que su propia libertad está amenazada". He aquí porqué Jose Luis y su compañera Teresa (un abrazo, Teresa) vinieron a Euskal Herria en 1982: siendo ese tipo de gente generosa, a aportar al proceso con la gente que ama la libertad. No con los que quieren confundir la verborrea vacía (incluso en euskara) con el diálogo y la intelectualidad, no. Ahora imagino a Jose Luis argumentando a favor de la dignidad mostrada por Iñaki de Juana bajo tortura y por los jóvenes detenidos, alzando su voz con la gente solidaria.

Imaginar no es un quehacer sin sentido. Prepara la acción. A propósito o sin darnos cuenta, tendrá consecuencias muy reales.

En las profundidades de cada persona se fecundan las posibilidades que se habrán de realizar. Si cedemos a las inercias (políticas, sociales, económicas, institucionales, familiares, morales, etc.) la violencia y los miedos agostarán una y otra vez los brotes del deseo y no haremos otra cosa que repetir lo que se nos manda. Pero si las relaciones (al menos una, puede ser suficiente) sostienen la identidad, si valoran la diferencia, el sujeto tendrá al alcance de la mano la palabra y la acción libres. Esta segunda opción para las personas y para los grupos fue sembrada, impulsada y teorizada por Jose Luis.

Imaginación y deseo, cuerpo y simbolismo, referente e historia, conflicto y comunicación,... la profundidad, complejidad y valor científico de la teoría generada por Jose Luis han puesto difícil, muy difícil, el marginarlo.

No se confundió con aquellos que, sin crear ni trabajar, dispersan sus fuerzas buscando la comodidad en escaladas institucionales. Su mensaje fue otro: buscándolo, la subjetividad siempre encontrará camino; y en ese proceso encontrará compañeros, quizá se separará, pero construirá una objetividad humana más libre. En otras palabras: quien se esfuerza sin rendirse, abrirá camino, seguro, y gozará de ello.

¿Que no les gustamos? ¿Que no somos mayoría?... sonrisa.

**Luix Marko** (psicólogo)

miembro de los colectivos Izargain-Areso y Leike